

'Euskera' aldizkaria on-line erabiltzeko bilaketa-tresna berria garatu dute

X. G. A. - Bilbo

Euskaltzaindiaren Euskera agerkari ofiziala inoiz baino eskuragarriago dago Akademiaren web gunean garatu den bilaketa tresna berriari esker. Aurrerantzean, aldizkariaren azken aleak ez ezik, internautek Euskeraren bilduma historiko osoan barna nabigatzeko aukera izango dute, Euskaltzaindiak 1919ko irailean egin zuen lehen bilerako aktatik hasi eta 2005eko abenduan plazaratutako 50. aleraino.

Horretarako, aski izanen dute www.euskaltzaindia.net/euskera helbidera sartu eta bilaketa modua hautatzea. Bilaketaren emaitzak pdf formatuan aurkezten dira, xehetasunei buruzko fitxa eta guzti, testuak faksimilean kontsultatzeko parada eskainiz.

Euskera aldizkariaren artxibo elektronikoa bilatzeko programa berriaren bidez, xerkaketak bi eratan egin daitezke: era arruntean, bilatu nahi den testuaren egilea, izenburua edota urtea sartuta; eta bilaketa aurreratuan, Euskaltzaindiaren barne antolaketari dagozkion karguak, lantaldeak, jardunaldiak eta araugintza bezalako parametroen arabera.

Funtsean, Azkue Bibliotekako katalogoan bilatzeko programaren moldaketa izan da tresna informatiko berri hau abian jartzea erraztu duena. "Euskera agerkariak duen garrantzia gogoan hartuta, egoki ikusi dugu argitalpen horrentzako berriazko bilaketa-programa informatiko bat sortzea", azaldu dute Akademiatik. Hala eta guztiz ere, bilaketa betiko moduan egin nahi dutenek, Euskaltzaindiaren batzar-agiriak deritzon atalean sartu eta Euskera aldizkariaren zerrenda osoa erabili ahal izango du begien aurrean.